

## IRAKASKUNTZA PUBLIKOKO ZERRENDATAN BAZAUDE, 2017AN BOTA ZAITZAKETE

Orain arte itundutako ikastetxeetan lanean dauden asko eta askok izena emanda dute irakaskuntza publikoko zerrenda batean, egunen batean jauzia emateko helburu edo itxaropenarekin. Orain arte lan egitera joateko dei bat jasotzen zutenean nahikoa zuten bere kontratua aurkeztearekin, ezin zelako joan argudiatzeko. Zerrendan geratzen zen eta lana beste bati eskaintzen zioten. Baina gauzak aldatu daitezke martxan jartzen badute onartuta duten ordezkoen araudiaren aldaketa.

*25. artikulua.- Zerrenda garbitzea.*

*1.- Birbarematze-prozesu bakoitzean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hautagaien zerrendak garbituko ditu, eta honako pertsona hauek kenduko ditu horietatik:*

*a) Hizkuntza-eskakizunik edo prestakuntza pedagogikorik eta didaktikorik egiaztatu ez duten pertsonak, hiru ikasturte jarraitutan, garbitzeari dagokion ikasturtea barne, lanik egin ez badute.*

*b) Aurreko bost ikasturteetan, garbitzeari dagokion ikasturtea barne, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren zerbitzura lanik egin ez duten pertsonak.*

*2.- Egingo den denbora-zenbaketan ez dira zenbatuko amatasunagatik edo aitatasunagatik uko egindako, seme edo alaba bat zaintzeko jarduera-eten iragankorreko edo atzerrian GKE baterako zerbitzuak ematen aritzeko aldiak, edo karrerako funtzionarioentzat zerbitzu bereziak aitortzea dakarten egoerak.*

Pribatuan lan egiten dutenek ez dute "Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren zerbitzura" lan egiten, eta, beraz, indarrean jartzen bada zerrendetatik kanpo geldituko dira. Artikulu hau aurreko gobernuak txertatu zuen zerrendak errealitatera hurbiltzeko: zerrenda batzuetan ehunka pertsona daude izena emanda, ehunka dei egin behar dute ordezkoa aurkitzeko eta dozena bat, besterik ez, egon daiteke lan egiteko "disponible", horrek suposatzen duenarekin.

Indarrean jarriko dute? Berez, hor idatzita dagoen bezala aplikatuta, 2013ko birbaremazioan egin behar izan zuten 1go garbiketara. Oraingo gobernuaren erabakia atzeratzearena izan zen, 2017-2018 ikasturtera pasatuz. Ezin da jakin zer gertatuko den gai horrekin, kontuan izanda, tartean, erkidegoan hauteskundeak egongo direla. Data hurbildu ahala informazio gehiago izango dugu. Eta afiliazioaren artean zabaldu ere bai. Beraz, lasai egon.